

“BIZIKIDETZA BAKEAN Donostiatik hasita”

Bakerako testuinguru politiko berria

Bakerako aukerak ekintzez finkatu behar dira. Eztabaida politiko hutsak, zehaztapen eta proposamenik ez badago, hutsalak izan ohi dira eta zalantza-iturri.

Euskal gizartearen gehiengoak sinetsita dago ETArekin egin duela. Arrazoi askogatik heldu da ETArekin jardueraren amaiera baina funtsean izan da, batetik, euskal gizarteak berak hala eskatu duela, indarkeriari zilegitasuna eten gabe ukatuz eta etsi gabe aurre eginez, eta, bestetik, ezker abertzaleak aldaketa estrategikoa egin duela, soilik bide politiko eta demokratikoen alde egiteaz gain, ETArekin indarkeria espresuki baztertzuz.

Bakearen helburua ez dago alderdikeriak erabilpenen mendean jartzetik. Halako tentaldiak erro-errotik eta erabat baztertu behar dira. Aukera honi heldu beharrean gara. Bakea babestu beharreko balioa da. Eta babestuko badugu, bakea sendotuko duten jokaerak behar ditugu.

Bake-egoera eta bakezkoak egiteko oinarriak ipini

- **Bakea dimentsio politikotik**

Egoera politiko jakina eta testuinguru zehatza behar dira bakea lortzeko. Argi dago indarkeriak egoerari eusten zioten baldintza sozial eta politikoa aldatu egin direla eta horrek bakerako bidearen hasiera dakarrela.

Bake-egoera sendotzeko demokrazia ere sakondu beharra dago. Demokrazia sakontzeak esan nahi du joko-arauak ez daudela manipulatzetik helburu politikoak lortzeko. Ilegalizazioen eta aukera demokratikoa baztertzearen estrategiek liskarra pizten dute gizartean eta politikan eta sistemarekiko mesfidantza sortarazten. Bide hori bakearen ongiaren eta justiziaren aurkakoa da.

- **Bakea dimentsio sozialetik**

Giza duintasuna eta hortik datozen giza eskubide guztiak oso-osorik errespetatu behar dira, aitzakiatarako zirrikiturik gabe. Koherentzia etiko hori galarazi egin du, kasu askotan, indarkeriak sortu duen eta sortzen duen tentsio politikoak.

Euskal gizartea gero eta gehiago barneratuz joan da indarkeriak zer esan nahi duen eta bide hori erabat baztertzeko duela esan du argi eta garbi. Euskal gizartea protagonista izan duen prozesu horrek jabetu arazi digu baita ere beharrezkoa dela biktima guztien sufrimendu bidegabea partekatzea, biktimen atxikimendu politikoa edozein dela ere.

Giza eskubide guztien defentsak, giza bizitza-eskubideak eta integritate fisikoarenak nahiz eskubide zibil eta politikoen, funtsezko irizpide etikoa osatzen dute bakezko egoera eraikitzen hasteko eta bakezkoak egiteko oinarriak ipintzeko.

Geroko utzi gabe, orain bertan bakezko kultura eraiki eta bakezkoak egiten hasteko, iragandako gertaeren kontaketei bide eman behar zaie eta etorkizunari ikuspegi demokratikoz heldu, kontsensu sozial eta politikorik handienaz.

Bakea Donostiatik eta gure Udaletik

Udalak, gizartea ordezkatzeko duen erakundea izanik eta herriagandik eta bizilagunengandik hurbilena, lehen mailako bakegile izan behar du. Udalek baketzeari egin beharreko ekarpena etxetik bertatik hasten da, Udaletan garatuko den jarrera nahiz jarduera politikotik, alegia.

Bake ezak eta alde bateko zein besteko indarkeriak sortutako hausturak eta zatiketak biktimei erasan diete eta orokorki euskal gizarte osoari, halaber Gipuzkoakoari eta Donostiakoari. Horregatik, Donostiako Udalak gure hirian gizabidezko bizikidetzaren eragiteko jarrera zabaldu beharko du.

Beraz ba, Donostiako Udalak ekin egin beharko dio gizartearen bizikidetzaren berritzeari eta bakezkoak egiteari, zenbait oinarri adostuta.

Ezinbesteko bi konpromiso

Konpromiso etikoa giza duintasunarekiko

- Ez dago ezer giza duintasunaren aurrekoa denik edo bere gainetik dagoenik, ez ideia edo egitasmo politikorik, ez hauen defentsarik, ez bidegabekeriaren salaketarik, ezta Estatu arrazoirik ere.

Konpromiso politikoa demokraziarekiko

- Ez dago ideia edo egitasmo politikoen alde egitea galarazterik ezta ere horiek gauzatzeari betoa jartzerik, bide baketsu eta demokratikoen bidez bakarrik defendituak direnean eta gizartearen gehiengoa alde daukatenean.

Konpromiso bikoitz honetatik abiatuta, EAJ-PNVk kontsensu sozialerako guneak eragingo ditu Donostian, oinarri sendoak eta konpartituak finkatzeko, hartara askatasunez garatu dadin gure gizarteko aniztasun politikoa.

Hauek dira jarraibiderako **irizpide** batzuk:

- ⇒ **Giza eskubideak onartu eta beraien errespetua landu**, hori baita udal arloko harreman politikoa eta donostiarren nahiz Udalaren arteko harremanak berreraikitze garrantzirik. Udalaren jardura demokratikoari zutik eutsiko dion bizkarrezurra, giza eskubide indibidual eta kolektiboen errespetua izango da. Giza eskubideen defentsa eraginkorra erantsi beharko zaie egitasmo eta egitarau politikoei.
- ⇒ **Elkarrekiko errespetua eta konfiantza berreskuratu** bizikidetzaren zuzenagoa eraikitze garrantzirik. Pertsonari eta ideia politiko desberdinei zor zaien errespetuan oinarritu beharko dira udal ordezkarien arteko harremanak. Jarrera horrek lagundu egingo du gorroto, mesfidantza, mendeku, dominazio eta haustura joerak indargabetzen. Halaber, lagundu egingo du gure hirian giroa baretzen eta ontzen, bai maila pertsonalean bai sozialean.
- ⇒ **Elkarri entzun eta elkarriketa landu**, aurrera egiteko. Hitza ez dago min egiteko erabiltzerik ezta engainurako eta hondatzeko ere. Bide hori utzi beharra dago, enfrentamenduzko dinamikatik elkar hartzera igarotzeko. Iritzi eta ideia politikoa elkarri azalduz eta entzunez egindako elkarriketa zintzoa izango da gatazkak gainditzeko bidea, akordioak lortzeko tresna eta gero eta bake osoago baterantz heltzeko bitartekoa.

Ekimen honen bitartez bizikidetzarako gune bat eratu nahi da Donostian, udal mailako gune plurala, bizikidetzak baketsu batera iristen lagunduko duten ekintzak adostu eta finkatzeko. Horretarako, beharrezkoa da, besteak beste, **eginkizun** hauek zehaztea:

- ⇒ ***Biktima guztiak onez hartu***, giza eskubideen urraketak eragin dien sufrimenduaren esperientziara elkartasunez hurbiltzen ahaleginduz. Bilatzen dena da, biktimak beren bizitzak lotzen dituen minetik askatzea eta bizitza duina berreskuratzea.
- ⇒ ***Bakezko heziketa landu*** donostiarren artean eta, berezi-bereziki, gazte jendearengan, norberak eta gizarte osoak bere ADNan txerta dezan indarkeria ez dela bidea gatazkak konpontzeko; alderantziz, elkarrizketa bidez eta arau demokratikoak onartuz iritsiko garelako akordioak lortzera eta bakean bizitzera.
- ⇒ ***Etorkizunaren oinarriak finkatu indarkeria berriro ez pizteko***. Donostiako gizarte osoa bultzatu behar da konpromiso horren aldeko lanera. Bakea guztion eginkizuna da, ez dago inor baztertzerik. Bakeak zerikusia du ikastetxeekin, gizarteko bake-eragileekin, komunikabideekin... Horiekin eta donostiarren partehartze biziarekin lan egin ahal izango du Udalak.
- ⇒ ***Sistema demokratiko sendoa eta arduratsua errotu***, horrek erakutsiko baitu baketutako bizikidetzak lortu dela eta bakezkoak benetan egin direla, alde batetik, nortasun politikoak eta bakoitza nondarra sentitzen den askatasunez garatu ahal izango direlako eta, bestetik, eskubide zibil eta politikoak eta Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea bere osoan bete ahal izango direlako. Behar-beharrezkoa izango da elkarrekin uztartzea, gutxieneko demokratikoak hitzartzeko konpromisoa eta gizartearen gehiengoak duen borondatearekiko errespetua.

KONPROMISO POLITIKOA

Donostiako Udalerako EAJ-PNVren hautagaiok pentsatzen dugu gure-gurea dugula eginkizun bat, ezinbestekoa eta inoiz baino beharrezkoagoa: bake-itxaropena ekintzez sendotzea, lan hori gure arlora eta erantzukizun politikora ekarriz. Horrek esan nahi du oinarri etikoa eta demokratikoa indartu beharra dauzkagula, zutabe horren gainean bizikidetzak eraikitzeke, pertsona eta bere eskubideak errespetatuz, ideiei eta egitasmoiei begirune izanez, elkarrekiko onarpenez. Hala eskatzen dute etikak eta politikak, eta euskal gizarteak ere bai. Guztiok ahalegindu behar dugu, eskuzabaltasunez eta buru argiz jokatu. EAJ-PNVko gizon-emakumeok prest gaude konpromiso hau onartzeko. Onena emateko garaia da.